

# BURUTAPENAK

Herri Ametsa Ikastolako  
OHOKO 8. maila.

Jen

# SARRERA

Herri Ametsako 8. neska-mutilok urte bukarako aldizkari bat ateratzea pentsatu dugu: **BURUTAPENAK**. Aldizkari hau, oparitxo bat bezala, gurasoei eskaini nahi genieke Ikastolako Jaietan.

Ale honetan zenbait gai interesgarri izango dizue: bertsoak, ipuinak, Arte-ibilaldiko laburpen bat... Oĩñati eta Arantzazu izan dira bereziki aztertu ditugunak Arte-ibilaldi honetan. Jakin, badakigu bi aurpegi desberdin ematen zaizkigula: Errenazimentua eta arte Modernoa, baina Euskal kulturari leku interesgarria dela dudarik ez dugu egiten. Umorea falta ez dadin, berriz, hor dituzue komikiak eta txisteak. Azkenik, gure jakinduriari froga bat egiteko asmakizunak ditugu.

Besterik gabe, barrendik miatu eta ondo pasa dezazutela.

# ITSASOA

*Itsaso maitea!  
Zu zara:  
Itsasontzien bidea,  
arainen etxea,  
txorien bazkaltoki,  
txit zerbitzailea.*

*Egunero lantzen  
duzun hondartza  
bihurtzen zait  
espirituaren baratza.*

*Hemen zatzaizkit  
nere nekeen  
gozatzaile,  
sentimentuen  
adiskide.*

*Alditan orroaka  
biziaren kabu,  
bestetan bare-bare  
amandre-amatxi.  
Behinere ez etsi,  
segi izaten beti  
nere amets leku.*

Asier Oiarzabal

# GERNIKA SUTAN

*Duela urte pila bat hemen  
Euskal Herri maite hontan  
herritar askok ikusi zuten  
Herria keaz ta sutan.  
Gure Legeak defendatzeko  
egiten zuten borrokan,  
FORUAK ETA LEGE ZAHARRAK  
zirelako arriskutan.*

*Herritarrek ez dute ahaztuko  
alemanen eraso,  
urte horretan utzi bait zuten  
apurturikan auzoa.  
Hitlerrek izan zuen errua,  
madarikatu zozoa  
urteak pasa beharko dira  
konpontzeko arazoa.*

*Gernika erruz bonbardatu ta  
eskutan harma zutela  
erruki gabe jendea hiltzen  
burutikan sartuz bala.  
Gazteak eta pertsona helduak  
han utzirikan txapela  
zerura igo ziren berehala,  
pakea izan dezatela!*

*Berrogeitabost urte pasata  
bat izan dela diote,  
historia hau orain kontatzen  
zuek ni hemen nauzute.  
Arazo hau laister konpontzeko  
behar dira hainbat urte,  
Euskal Herriak segituko du  
Independentzira arte.*

Elena Alkiza

# EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

*Euskal Herria dugu  
gure aberria,  
denok ikusten dugu  
egoera larria.  
Bultzada handi batez  
bueltatu horria,  
bertsoz lortu dezagun  
gure Euskal Herria.*

*Egoera ikustean  
bihotzeko mina,  
aspalditxotik dugu  
pekatu egina.  
Erabat aldatzeko  
egin dut nik zina,  
hau lortuko genuke  
gehiago bagina.*

*Euskara erdaldunek  
dute ezabatu,  
eta zuk egin gogor,  
beti deklaratu.  
Gu denok elkartuaz  
erdara baztertu,  
han edo hemen beti  
etxea goratu.*

*Euskara dugu hemen  
aspaldiko hizkuntza,  
ez bildurrez ibili  
eusteko hizkuntza.  
Borrokatu dezagun  
gure zapalkuntza,  
hortarako behar dugu  
guztion laguntza.*

Xabier Lopetegi

# TXORIMALOA


*Aitonaren zapata zaharrak  
oinetako bikainak,  
zuloz jositako bluxa urratua  
jazkera apaina.*

*Bere gorputza lastoa  
besterik ez,  
bihotzik ez,  
odolik ez,  
pentsamenturik ez,  
hitzik ez.*

*Bere bizitza guztia makila bati  
lotua;*

*egunak,  
hilabeteak  
urteak eta...  
egun batez:  
krask!*

*Makila puskatu da  
eta txorimaloa  
airean hegaz doa.*



*Arantxa eta Begoña*

# ARTE IBILALDIA

## HITZAURREA:

Urtero egiten dugun arteko ibilaldiak, aurten Oinati eta Arantzazura eramán gaitu, bi herri hauetako artea ezagutu eta aztertzerá. Lehenengoan errenazimentuko artea ikusi genuen eta bigarreanean arte modernoa. Hona hemen gure bidaiaren laburpena.

## OINATIKO BIDAURRETA MONASTEGIA

Monastegi hau, XVI. mendean eraikia izan zen, bertako López de Leizarragak aginduta.

Eliza gotikoa da, errenazimentuko gauzak aurrekaldean izan arren. Zutabe klasikoak ditu. Monastegi honetan, Frantziskotarren armaharria dago, hala nola Austria senidearen hiru armaharri aurki ditzakegun.

Monastegi honetan, klausurako serorak (monjak) daude. Monastegiaren ondoan, fraile Frantziskotarren etxea dago, seroren ekintzak zuzentzen dituztelarik.

Bidaurreta-ko monastegiak, arku konopialak ere ba ditu.

Barrualdean arku zorrotzak daude. Erretabloa oso errekgartua dago eta zutabeak erruz ematen dira. Ezkerreko erretabloa platereskoa da. Platereskoa, errenazimentuko etapa bat da.


Elizaren barruan, hilobi bat dago. Badirudi, hilobi hori Leizarragarena dela, baina ez dakite oso zihur. Hilobi honen gainean, armaharri bat dago. Hau Leizarragarena da.

## OINATIKO UNIBERTSITATEA

Unibertsitate honen eraikpena bertako don Rodrigo del Mercado de Zuazola-k agindu zuen. Rodrigo, Avilako gotzaia, Cisneros Cardenalaren laguna zenez, Unibertsitatearen eraikpena Alcalá de Henares-ko Unibertsitatea bezelakoa edo antzekoa egitea agindu zuen.

Unibertsitate hau, errenazimentuko da. Aurrekaldeak, hiru gortuz ditu. Oso orniturik dago, pilastra sendoak, kontxak eta abar dituelarik. Zutabe klasikoak, puntu erdiko arkoak eta pinakuloak ditu. Atearen goi aldean, Don Rodrigoren figura otoitzean ikus daiteke, eta bere atzean ezagutzen ez den pertsona baten figura. Erropak gortuzari ondo erantsiak daude. Alboetan, bi armaharri, bere abizena ematen dutelarik.

Lehenengo zatian, Herkulesen burruka dago. Barruan, Oinatikoa bailararen maketa bat dago.



### Otoitz lekua (kapilla)

Plateresko erretablo bat dago, urre asko duena gainetik. Berez, kapera hau, Espiritu Santuari eskainia dago.

Espiritu Santuaren sinboloa usoa da. Beheran, San Miguel patroia inudi bat aurki dezakegu, Dragoi bat ere bai deabruaren sinbolo bezela.

Erretabloan dauden santu guztiak, erdialdera begira daude. Erretabloaren atzeko aldean, dena pipiaz jota dago. Aurreko aldean berriz ez.

### Artesau mudejarra

Bigarren bizitzara igotzeko, eskailera xehe bat dago, eta bigarren bizitzako zapaiarekin kontraste handia du.


Musulmanek irudiak debekatuak zituztenez gero, zapaia forma geometrikoz egina dago. Areta nagusian ere gauza berbera gertatzen da. Lehenengo zatiak hirukiak ditu eta bigarrenak laukiak. Dekorazioa ere lorez egina agertzen da.

Don Rodrigoren armaharria izkina guzietan aurki daiteke.

### Unibertsitateko patioa

Errenazimentuko elementuak oso argi ikusten dira. Enjutak ere oso garbi ikusi daitezke.

Domiña batzuetan, pertsonalitate nagusiak ageri dira. Adibidez: Karlos I eta bere emaztea. Pertsonai mitologikoak nabari daitezke. Hauen funtzioa, euriaren ura kanpora botatzekoa da. Armaharriak ere daude eta hauek don Rodrigorenak dira.



# OINATIKO SAN MIGUEL ELIZA

Eliza hau gotikoa da. Errenazimendu, barroko eta neoklasiko estiloa ere badu. Sarrera barrokoa da. Dorrea XVII. mendekoa da. Euskadin antzeko asko daude, euskal indianoak, Amerikatik aberats etortzean, bere diruz dorre hauek eraiki zituzten.

Aldare nagusiaren ezkeraldera, kapilla txiki bat dago. Pietateko kapilla deritza.

San Migueleko parrokiak arkitektura berezi bat du. XV. mendeko bigarren erdialdean eraikia izan zen. Klaustroa gotikoa du, arku konopialak dituelarik. Aldare nagusian barroko erretablo bat dago. Kapillaren erretabloa platereskoa da, egurrez egina.


Goi aldean, Unibertsitateko atean gainean dauden eskultura multzo berbera dago, edo ia berdin errepikatzen da. Beste erretablo txiki bat ere ba dago. Platereskoa da eta Doloretako amari eskeinita dago.

Klaustroa gotiko zoragarri egina dago, azken aldeko gotikoa. Oso nabarmena da barrutik pasatzen den ibaia.

Irudi eta apaingarri asko daude arku baten inguruan. Arku honen inguruan, belaunikaturik apezpikua agertzen da; senide edo alegoria bat agertzen direlarik. Lan ederra benetan.

Aldare nagusiko erretabloa eta ate nagusia, Juan Bautista Susok nafarra eginak dira.

Dorrea berriz, XVIII. mendeko lan bat da, Manuel Martín Carrerak egina. Oinatin erdi aroko beste dorre batzuk ere ba daude.



## ARANTZAZUKO HISTORIA LABURRA

1469. urtean, Arantzazuko ama agertzen zaio Rodrigo de Balzategi artzai gazteari, Oinatiko mendien arantzen artean.

Rodrigo artzaia bere artaldea zaintzen zegoen bitartean zintzarri bat entzuten du. Bere ardi bat delakoan, bila joaten da eta Arantzazuko ama dela ikusten du. Galdera hau egiten dio:

—Arantzan zu?

Hortik datorkio bere izena. Ondoren eta bere oroimenez ermitatxo bat eraiki zuten.

### Arantzazuko Eliza edo Basilika

Lehenengo eliza txikia eta alaia zen. Laorga eta Sáinz de Oiza izan ziren arkitektoak. Euskal jendeak asko lagundu zuen eliza berri hau eraikitzean. Orma gogorrez jaso zuten. Arantzazuko amari duela 22 urte kendu zizkioten jantzi eder guztiak, eta artzaiari agertu zitzaion bezela jarri zuten, erretabloarekin ondo zetorkiolako.

Ama Birjina agertu ondoren, eliza hontatik Merzedarioak, Frantziskanoak, Jeronimoak eta

Dominikoak pasa dira. 1514. urtetik geroz, Frantziskanoak daude.

Arantzazu hiru aldiz erre da. Bi kasualitatez eta bestea liberelek erre zuten. Hau 1834. urtean gertatu zen. Arantzazu berriro eraikitzeko 200 pare idi ekarri zituzten, materialea ekartze-arren. Arantzazu oso maitatua zenez, 550 euskaldun joan ziren lan egitera.

### Ama Birjinaren figura



Gotiko figura bat da. XIII. mendeko irudia izan daiteke edo pixka bat geroagokoa.

Ama Birjina, ama bezela, bere semea maitasun osoz eusten du, bere belaunaren gainean. Erregin baten jazkerarekin, arka baten gainean dago eseririk.


Bere aurpegia, goxoa da. Elorri zahar baten gainean dago sostengaturik. Eskubi aldean kanpai bat dago zintzilik. Bertan izan zen aurkitua.

Taldeko lana


# KOLONEN BIDAIA



KOLONEK LURRA ARKITU ZUGEN.



INDIOAK GUDARAKO OBRTU ZIRAN...



EZ ZEKIEN ZER EGIN...




ORDUAN DINZON AMAIK ARTILERIA EKARTZEKO ESAU ZION.



INDIOEK HURA IKUSTEAN, ARMAK UTZI ZUZUTEN.

jarraitzen du





**AMAIERA**

Zidorr Etxebarria

# JON

Jon izeneko gaztetxo bat kostaldeko arrantzale herri txiki batetan bizi zen. Jonek asko maite zuen itsasoa. Txikitatik joaten zen arrauna egitera. Hortarako "Nemo" izeneko txalupa bat zeukan, aitak, hil zenean, berarentzat utzia. Indartsua zen eta bakarrik joaten zen arraunera.

Egun batez, kalean zehar zihola asko pentsatzeke norbaiten aurka jo eta lurrean aurkitu zen. Norbait hori bere adineko mutiko bat zen. Zirudienez bere ileak ez zuten aspalditxoan orrasirik ikusi. Mutikoa farrezka hasi zen. Jonek ez zekien zer egin. Heziketa gutxiko mutikoa iruditu zitzaion.

—Kaixo mutil. Nor zara?

—*Ni Jon eta zu lotsagabe bat.*

—Ez mutil. Hori ez da nire izena. Manu deitzen naiz —esan zuen mutikoak eskua luzatuz.

Jonek eskua begiratu zuen eta konturatu zen zikin-zikina zegoela.

—Barkatu, baina ez dizut eskua eman nahi.

—*Zergatik, seinorito? Eskua zikintzeko bildurra?*

—Beno, ez daukat zurekin hitzegin beharrik eta kalean topo egin dugulako lagunak izan beharrik ere ez.

—*Ez duzu pentsatuko nire errua denik, ezta? Zu, neska horri begira zindoazen.*

—Ez da egia, gezurri alena!

Horrela, borrokatu ziren eta nahikoa eginda, biak minberaturik zeudenean, elkar eskua eman eta farrezka hasi ziren. Denborarekin lagun onak bihurtuko ziren.

Urteak etorri, urteak pasa, biak asko aldatu ziren. Lehen Manu mutiko zapartsua bazen, orain itxurazko gaztea agertzen zen kalean.

Arratsalde batez kaian biak paseatzen zihoazela, gizon bat hurbildu zitzaion. Galtza zikin batzuk zeramazkin eta jertsei handi bat. Zapatak, berriz, izugarrizkoak zituen. Bere tripulazioan bi gizon falta zitzaizkiela eta lanerako proposamena egin zien. Bi gazteek baietza eman zien. Bazekiten arrantzaleen bizitza gogorra zela, baina itsasoa asko maite zuten eta gainera lan eskasian aurkitzen ziren.

Itsaslan honetan ari zirela, ekaitza zetorkiela konturatu ziren marinelek. Itsasoa harrotua zegoen eta laister hasi ziren tximistak eta trumoiak. Jon eta Manu urduri jarri ere bai.

Beren arrantzale bizitza motzeko lehen ekaitza zen. Beste marinelek bi gazteak lasaitzen hasi ziren. Manu lasaitzeko eseri egin zen ontziaren izkina batetan eta ustegabeko olatu batek uretara eramane zuen. Manu igerilari ona zen, baina oso urduri zegoenez, ez zen kapaz harrotutako ur haietan igeri egiteko. Berehala Jon, "hor noa, Manu" esanez, uretara buruz sartu zen. Manu zegoen lekurantz hasi zen ahal zuen bezala igerian eta bere ondora iristean, ondo heldu eta itsasontzikoek botatako sokaz gerrian lotu zuen eta marinelek ontzira igo ere bai. Jon sokazko eskaierantz hasi zen igerian, baina zurrunbiak momentu batean jan zuen.

Denak penaturik zeuden, Jon ito zela ustetan. Barealdi bat izan zuen itsasoak eta mirari bat izango balitz bezala Jon han agertu zen erdi hilik ur gainean. Marinelek elkar harturik itsaontziratu zuten Jon.

Bi lagunek, bata bestearen aurrean zeuden, oso nekaturik. Besarkatu ziren eta biak batera zioten:

"Izan gaitezen beti elkaturik"

Itziar Sorarrain

# BIXENTE MERKATARIA

Orioko kaian ibiltzen zen Bixente gora eta behera. Garai batean gizon indartsua izan bazen ere, orain ikustekoa zen haren tankera: bizar luze nahastua, beti pipa erretzen, eskuak atzean gurutzaturik, burumakur hara eta honera inori kasorik egin gabe. Bixente triste bizi zen bere emaztea hil zitzaionez geroztik.

Bere emazteak Argiñe zuen izena. Izan ere hala bait zen, dena argia eta alaitsua. Bixente tristuraz josita gelditu zen arrezkeroztik. Haurrak maite bazituen ere, gerturatzen zitzaizkionean izutu egiten zituen. Herrikoek, berriz ezkondu beharko zuela esaten zuten, baina "kaixo bat" esaten ere inor ez zen ausartzen.

Behin, kaian zebilelarik, bi gizon etorri zitzaizkion. Ingles azentua zuten. Errusiara kotoia eramateko proposamena eginaz etorri ere. Bixentek Afrika eta Amerikako kostaldeko nazioak ezagutzen zituen. Oraingo proposamentuak ilusio berriak esnarazi zizkion eta baiezkkoa eman zien; berak bizi zuen bizitza negargarri hura gainditzeko ona izango zela pentsatuz.

Apirilaren 16an atera zen Oriotik. Itsasgizon hoiien artean kargamentuaren jabe ziren bi gizon haiek ere berekin zituen. Kanal de la Manchatik pasa eta Suezia eta Dinamarkaren artean dagoen pasalekutik Baltiko itsasoa zeharkatu zuten egun gutxi barru. Hamargarren egunerako Kaunas Errusiako hirian zeuden. Iluntzea zela eta hurrengo egunerako utzi zuten barkua deskargatzea.

Afaldu ondoren kotoia gordetzen zuen gelan argia ikusi zuen eta han sarturik bi gizon aurkitu zituen kotoi guztia nahaspilatzen eta gela erdian hiru zaku handi zituelarik. Sustraiak bota balitu bezala tinko gelditu zen Bixente eta hitzerdi bat zuzendu baino lehenago beregain ziren bi gizonak. Bixente lotu zuten irmoki eta bi gizonak lanean segi zuten 20 zaku aurkitu bitartean. Aspertu zirenean Bixente han utzirik joan ziren.

Bixente, ahal izan zuen bezala askatu zen eta bere logelan bi gizonak jokuan zeudela sarrailatik ikusi zuen. Orduan makina-gelan sartu zerbaiten irteera aurkitu nahian. Miatu ondoren bengala kaxa bat aurkitu zuen, baina poxpolorik ez zuen berekin. Zer egin? Bengala kaxa irikitzean ohartu nintzen poxpoluak ere bazeudela. Poliki poliki makinaren gelatik atera nintzen eta 10 bengala piztu nituen.

Polizia berehala agertu zitzaion txalupa txiki batean. Hala moduz Bixentek ulertarazi zien bi gizon, drogazaleak, zeudela itsasontzian. Orubete barru poliziak bere esku zituen gizon haiek.

Itsasontzia ustu ondoren Oriora bueltatu zen, baina Bixente portura iritxi baino lehenago ETBk beraren berri eman zuen eta ohoretan hartu zuten herrira iristean.

Handik aurrera Bixente oso pozik bizi izan zen denek kaso egiten ziotela.

Garbiñe Imaz

- 1) Zazpi izen ditut,  
eta handikeriarik gabe adierazi,  
nahiz eta tontua ez izan  
ez zait ezer harritzen  
edozein momentutan  
nola deitzen naizen galdetzea.
- 2) Esan zertaz tratatzen da:  
Geronan bat dago,  
Bartzelonan bi  
eta Igoaladan hiru.  
Zer da?
- 3) Hiru koloreetakoa naiz  
urdina, berdea, marroia,  
eta nere koloreetako eskala  
koloreari eskertu behar diot  
berdeak gehiena balio du  
eta urdinak marroiak baino gehiago.
- 4) Memoria famatua du  
usaimen fina, azal gogorra  
eta munduan aurki daitezken sudur handienak.  
Zer da?
- 5) Olio antzeko likido bat da.  
"urre beltza" deitzen dutena  
nahiz eta aurkitzen zaila izan  
mundu guztian erabiltzen da.
- 6) Garaikoetxeak luzea du  
Frankok motza, eta Juan Pablo II.k ez du erabiltzen  
eta emazteak senarrarena erabiltzen dute.

**Erantzunak hemen bilatu:**

Abizena, Elefantea,  
Petroleoa, A hizkia  
Diru billetea,  
astearen egunaren izena

## TXISTEAK

Bazegoen mozkor bat bere etxeko atearen aurrean. Atea iriki nahi zuen, baina ezin.

Une hartan serenoa agertu zitzaion galdezka:

—Zer ari zara egiten?

—Atea iriki nahi nuke.

—Baina... nola irikiko duzu supositorio batez?

—Mekaben laletxe! Orduan, giltzak non sartu ditut?

Zoro batek esaten dio beste bati erloju bat seinalatuz:



—Zer ordu da?

—Hamarrak


—Ongi al dago?

—Ez. Bestela ez litzateke hor egongo.

A  
S  
P  
E  
R  
T  
A  
R  
O



# MUSIKALDIA



TIPO HAU  
BURUTIK IWA  
DAGO ESPETXAN  
BUKATIRO  
DU



AKR BATUA  
NAGO .EZ DRU-  
KAT DIBURIK  
ETA GAINERA  
DESINTAXIKATZ-  
KO GEMARRA



EZ DAKIZU ZER  
ESATEN DUZUN  
MUNDU HONETAN  
ONDO BIZI GARA,  
ETA LAPURRELAN  
DIRUA LOTZEN  
DA.

# GARBITASUNA NAHI DUGU

Egunero bezala ohetik jaiki nintzen, denei “egun on” esan ere bai. Leihoan geneukan gardantxiloa-rengana abiatu nintzen betiko janaria eta ura emateko. Nerekiko “txio, txio” kantua nuelarik, ireki nuen leihoa eta berehala konturatu nintzen ke beltz nazkagarriaz eta nere txoria hilik zegoela ikusirik, garraisi handi bat egin nuen.

—Zer duzu, Praixku? —galdetu zidan nire aitak.

—*Txoria hil zait* —erantzun nion negarrez.

—Negarrik, ez egin izango duzu beste bat.

Nire arreba eta bik k “tiko”, gure txakurra, harturik, ikastolarantz joan ginen. Bideetan uso asko aurkitu genituen hilik. Aitonaren usategia gertu geneukanez hara jo genuen zerbait gertatuko zitzaioala-koan edo pentsatuz.

—Zer gertatzen zaizu, aitona Patxi, horrela burumakur egoteko? —galdetu zion nire arrebak.

—*Uso guztiak joan zaizkit.*

—Neri ere txoria hil zait; zergatik ote da?

—*Ez al duzu ikusten nolako laino beltza daukagun gure gainean? Kutsadura da hori, gizarteak sortzen duen zikin likitsa.*

Tiko ere burutik eginda zegoela zirudien. Negarrez bezala ikusten genuen ikastolako bidean.

Kirol saioan gure arteko elkarrizketa kutsadurari buruz izan zen. Bakoitzak kontatzen zituen bereak eta nik nereak, baina ezin gaintu gure penak.

Arratsaldea libre nuen eta mendira joatea pentsatu nuen inori esan gabe. Jakina, Tiko nerekin nuen.

Harizti zoragarriak aurkitu nituen Urdaburu aldean. Entretenigarri zitzaidan dena: txori-kabiak bilatzea, birigarro eta zozoen arteko kontzertu etengabea, katagorrien zirkua... Horrela nembilela artzai batekin topo egin nuen.

—Nor zara zu? —galdetu zidan.

—*Praixku naiz.*

—Mendian asko gozatuko zenun txori-kabiak bilatuz.

—*Hala da. Mendia atsegin zait, batez ere udaberrian.*

—Eguzkia ba doa eta nere ardiekin bordara joan beharko dut. Zuri ere etxeratzeko ordua etorri zaizu, agur!

Baina, etxera joan beharrian, han inguruan ikusten nuen borda batetara joan nintzen. Poltsan nituen bokadiloak atera eta afari legea egin genuen bat tikori emanaz... Elkarren ondoan lo hartu genuen.

Hurrengo egunean, goizean goiz, zizare batzuk papertxoan hartu eta haritz handi batetara igo nintzen, han bait zegoen bigarroka. Zizareak txorikumeari ematen ari nintzala, zuhaizpean utzi nuen irratia zihoen:

—Praixku izeneko mutil batek ihes egin du.





Ni farrez eta zoriontsu zizareak txorikumei ematen segitu nuen bukatu arte. Jeisterakoan irrist egin nuen eta lurrera erori nintzen. Ibiltzeko ez nintzen gauza. Nire karrasi eta aiumak entzunda aurreko eguneko artzaia etorri zitzaidan berehalaxe.

Zeukan autoan ekarri ninduen etxeraino. Ez nuen gauza handirik, txorkatila bihurrituta, besterik ez. Etxekoek ez zidaten errieta eman, hauxe esan zidaten:

—Aitona Patxiri usoak usategira etorri zaizkio.


Notizia berri honekin poztu nintzen etxean egoitekin bezala.

Izaskun Arregi



Egun batez, gizon bat tabernan sartu zen eta tabernariari esan zion:

- Aizu, lehen ez al zeuden hemen adar batzuk?
- Ez, ez dira inoiz egon.
- Eta ispilurik?




Telefonoz dei bat:


- Barzelona?
- Bai, hemen Barçako kluba.*
- Egia al da Maradona Italiako ekipo batetara dihoala?
- Bai, eta zer esan nahi zenioke?*
- Garrantzirik gabeko zer bait... Uf!

Egun batez, San Pedro, zeruko atezaina, egarri eta nazkatuta zegoen hainbeste aldiz atea ireki eta itxi egiten. Eta horrela:

- Tak, tak!
- Nor da?
- San Migel!
- Utzi bi kaxal!




Taldekatu lana





- Aita
- Atera
- Barruan
- Belarra
- Dadua
- Dena
- Etxea
- Erakundea
- Garbitu
- Gosea
- Jan
- Jantzi
- Katua
- Kilometroa




# HIZKI ZOPA



E	U	X	Z	○	D	G	D	Z	U
T	R	S	A	G	A	G	A	D	A
A	E	L	I	B	U	R	A	X	S
G	U	E	○	D	E	U	○	L	Z
N	A	R	R	J	D	T	K	A	T
Z	Z	R	U	L	U	D	E	R	A
E	X	S	B	B	E	A	R	E	X
B	U	E	R	A	I	U	R	D	○
A	X	○	T	U	S	L	U	Z	T
X	J	○	N	R	D	I	A	E	A
E	R	R	E	G	L	A	T	N	K
B	H	Z	J	K	X	M	E	E	G
I	E	B	○	M	H	N	B	P	J





\* ALBANIA

\* FRIUL

\* RAZISTA

\* AFRIKA

\* ALASKA

\* IRAN

\* ARGELIA

\* NIZO

\* LIBIA

\* AMBOTO

\* LIBANO


\* TAILANDIA

\* CIABON


\* RHIN

\* ALABA

\* ARABIA



Lagunduko al zenioke zerbitzariari bere nagusia bilatzen?



A	L	R	A	N	I	A
L	*	L	U	I	R	F
A	T	S	I	Z	A	R
S	A	*	*	A	N	I
K	H	*	*	*	*	K
A	I	L	E	G	R	A
M	L	I	I	A	*	*
B	A	B	*	B	N	A
O	N	A	U	O	I	L
T	D	N	S	N	H	K
O	I	O	H	*	R	B
*	A	R	A	B	I	A




●●I Z N I ●●S




DESINTOXIKAZIOA ETA GERO  
MUSIKA GUSTATZEN ZAIO




~~DROGA~~  
~~ESTROGA~~  
NU ESTE  
RESALA  
SAMER  
FEARBEKE



HORRELA BUKATU ZØEN  
BESTE LAGONAK





# KONKORDUNA



*[Signature]*